<table>
<tr><td colspan="2" align="center"><u>OHIKO OSOKO BILKURA</u> / <u>PLENO ORDINARIO</u><br><br><u>2023KO URTARRILAREN 30A / 30 DE ENERO DE 2023</u></td></tr>
<tr><td colspan="2" align="center">BERTARATUAK / ASISTENTES</td></tr>
<tr><td align="center"><u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u><br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna</td><td><u>ALKATEA / ALCALDE</u><br><br>D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).<br><br><u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u><br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Ander Curiel Ayuso PSE-EE (PSOE).<br><br><u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u><br><br>Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Elena Ibañez Anucibay andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (EH BILDU).<br>Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK).</td></tr>
</table>

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20230130&instante=0

**Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, 2023ko urtarrilaren 30ean, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran**, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

**En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día 30 de enero de 2023, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal**, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as.

**Alkate** jaunak bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El Sr. **Alcalde** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

**1. 2022ko abenduaren 21eko bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.**

**1. Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de 21 de diciembre de 2022.**

2022ko abenduaren 21eko bilkurari dagokion akta-zirriborroa bozkatu ondoren, onartu egin da, eta aktatzat hartu da.

Sometido a votación el borrador de acta correspondiente a la sesión de 21 de diciembre de 2022, queda aprobada, siendo elevada a acta.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**2. Alkatetzak emandako ebazpenen berri ematea.**

**2. Dación de cuentas de resoluciones de Alcaldía.**

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

**3. Berri-ematea: Kirolaren, Jarduera Fisikoaren eta Bizimodu Osasuntsuaren Batzorde Aholkularirako izendatutako kideak.**

**3. Dación de cuentas: vocales designados para la Comisión Asesora de Deporte, Actividad Física y Vida Saludable.**

Kirolaren, Jarduera Fisikoaren eta Bizitza Osasungarriaren Batzorde Aholkularian parte hartzeko Udal taldeek izendatu dituzten kideen berri eman da:

- Patricia Arrizabalaga Larrañaga and.
- Jon Perez Illana jn.
- Igone Lamarain Cobo and.
- María Isabel Fernández Pejenaute and.

Se da cuenta de los vocales designados por los diferentes grupos municipales para formar parte de la Comisión Asesora de Deporte, Actividad Física y Vida saludable

- Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga.
- D. Jon Perez Illana
- Dña. Igone Lamarain Cobo
- Dña. María Isabel Fernández Pejenaute

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

**4. Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketari hasierako onespena ematea.**

**4. Aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza Municipal Reguladora de los Usos, Tráfico, Circulación y Seguridad en las Vías Públicas de Carácter Urbano.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 9 - PSE-EE (PSOE).

VOTOS A FAVOR: 9 - PSE-EE (PSOE).

KONTRAKO BOTOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
ABSTENTZIOAK: 6 - Eibarko EAJ-PNV.

VOTOS EN CONTRA: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
ABSTENCIONES: 6 - Eibarko EAJ-PNV.

Ikusita 2019ko abenduaren 19ko Trafikoko Batzorde Aholkulariak egindako proposamena, Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketa onesten duena.

Vista la propuesta de la Comisión Asesora de Tráfico, de fecha 19 de diciembre de 2019, de aprobación de la modificación de la Ordenanza Municipal Reguladora de los Usos, Tráfico, Circulación y Seguridad en las Vías Públicas de Carácter Urbano.

Ikusita Udaltzaingoko arduradunaren txostena, 2022ko ekainaren 30ekoa, zeinean hauxe adierazten duen:
"Aldaketarekin, gaur egun, neurriengatik eta kokapenagatik, hutsik edo inongo probetxurik ateratzeke dauden lokalak ibilgailuen gordeleku gisa erabili nahi dira.

Visto el informe del Responsable de la Policía Municipal de 30 de junio de 2022 en el que indica:
"Con la modificación se pretende dar uso como guardería de vehículos a locales que, por sus dimensiones y ubicación, en la actualidad se encuentran vacíos o desaprovechados.

Aldaketa horrek aldaketa hauek dakartza Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzaren 38. artikuluan:

Dicha modificación supone realizar los siguientes cambios en el artículo 38 de La Ordenanza Municipal Reguladora de los Usos, Tráfico, Circulación y Seguridad en las Vías Públicas de Carácter Urbano:

38. artikuluari salbuespen hau gehituko zaio:

– Salbuespen gisa, pasabide-lizentziak eman ahal izango zaizkie 3.500 kg-tik beherako karga duten hiru auto edo furgoneta aparkatzeko gutxieneko edukiera izan eta gutxienez 75 m²-ko azalera erabilgarria duten lokalei (bideen, sarbideen eta abarren zati proportzionala

En el artículo 38 se añadirá la siguiente excepción:

– Excepcionalmente, se podrían conceder licencias de vado a los locales con una capacidad mínima de estacionamiento para tres turismos o furgonetas de carga inferior a 3.500 kg., y que dispongan de una superficie útil de al menos 75 m² (incluyendo parte proporcional de viales,

barne), betiere, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Lokalaren azaleraren konfigurazioa ibilgailuak modu independentean sartu eta atera ahal izateko modukoa izango da; hau da, aparkatuta dauden beste ibilgailuetako bat mugitu beharrik gabe maniobratu ahal izango dute. Intentsitate txikiko bideen kasuan izan ezik, ibilgailu-fluxu txikiak bide publikoan maniobratzeko aukera ematen duen lekuetan, alegia. Horrelakoetan, Udaltzaingoak txostena egin beharko du, lokala pasabidea emateko egokia den ala ez adieraziz.
- Automatikoki irekitzeko atea izan beharko dute, trafikoa ez oztopatzeko, eta kanpoko argi bat jarri beharko da, ibilgailuak sartu edo atera daitezkeela adierazteko.
- Lokalak su-itzalgailuak izango ditu.
- Pasabideak ezin izango ditu 5 metro lineal baino gehiago izan edo, sarbidearen aurrean, ezingo du kendu eremu publikoan aparkatzeko plaza bat baino gehiago.

Horrelako kasuetan emango den lizentzia erabilera iraunkorreko pasabidearena izango da."

accesos, etc.); siempre que cumplan con los siguientes requisitos:

- La configuración de la superficie del local deberá de permitir que los vehículos entren y salgan de manera independiente, es decir, que maniobren sin que sea necesario mover otro de los vehículos ya estacionados. Salvo en el caso de viales de baja intensidad, en donde el pequeño flujo de vehículos permita maniobrar en la vía pública, siempre con un informe preceptivo de la Policía Municipal que valore favorablemente la idoneidad del local para la concesión del vado.
- Deberán de contar con puerta de apertura automática para no interferir en el tráfico, y se deberá de colocar una luz exterior de aviso que indique la posible entrada o salida de vehículos.
- El local contará con dotación de extintores.
- El vado no podrá tener más de 5 metros lineales o eliminar más de una plaza de estacionamiento de la vía pública, frente al acceso.

La licencia a conceder en estos supuestos será la de vado de uso permanente."

Kontuan hartuta Araudiaren hasierako onarpena Udalbatzari dagokiola, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera,

Considerando que la aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza corresponde al Ayuntamiento Pleno, en virtud de lo establecido en los artículos 22.2.d) y 49.a) de la Ley 7/1985, de 2 abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Ikusita Idazkaritzaren 2023 urtarrilaren 17ko txostena.

Visto el informe de Secretaría, de 17 de enero de 2023.

Ondorioz, kontuan hartuta 2023ko urtarrilaren 23ko Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de fecha 23 de enero de 2023,

Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**AURRENA.-** Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzako 38. artikuluaren aldaketari hasierako onarpena ematea. (V. Titulua. Pasabideak eta aparkalekuen erreserba bereziak)

Aldaketak egin ondoren, artikulua honela idatzita geratuko da:

- *Ibilgailuetarako gordelekuak edo garajeak gutxienez 3.500 kilotik beherako karga*

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación del artículo 38 de la Ordenanza Municipal Reguladora de los Usos, Tráfico, Circulación y Seguridad en las Vías Públicas de Carácter Urbano. (Título V. Vados y reservas especiales de estacionamiento)

El artículo, tras la modificación, quedará con la siguien redacción:

- *Guarderías de vehículos con una capacidad mínima de estacionamiento*

*duten bost turismo edo furgoneta aparkatzeko lekua behar dute izan, edo karga handiagoko hiru kamioi sartzeko modukoak behar dute izan. Ibilgailu bakoitzeko 25 m²-ko azalera erabilgarria eduki behar dute, eta kamioien kasuan, 40 m² (betiere bideak, irispideak e.a. kontuan hartuta.).*

*Familia bakarreko etxebizitzei zerbitzua ematen dieten garajeen kasuan, gutxieneko edukieraren baldintza betetzetik salbuetsi ahal izango da.*

*Horrelako kasuetan emango den lizentzia erabilera iraunkorreko pasabidearena izango da.*

- *Salbuespen gisa, pasabide-lizentziak eman ahal izango zaizkie 3.500 kg-tik beherako karga duten hiru auto edo furgoneta aparkatzeko gutxieneko edukiera izan eta gutxienez 75 m²-ko azalera erabilgarria duten lokalei (bideen, sarbideen eta abarren zati proportzionala barne), betiere, baldintza hauek betetzen badituzte:*
    - *Lokalaren azaleraren konfigurazioa ibilgailuak modu independentean sartu eta atera ahal izateko modukoa izango da; hau da, aparkatuta dauden beste ibilgailuetako bat mugitu beharrik gabe maniobratu ahal izango dute. Intentsitate txikiko bideen kasuan izan ezik, ibilgailu-fluxu txikiak bide*

*para cinco turismos o furgonetas de carga inferior a 3.500 kg., o tres camiones de carga superior, y dispongan de una superficie útil por vehículo de 25 m² o de 40 m² si se trata de camiones (incluyendo parte proporcional de viales, accesos, etc.).*

*En el caso de garajes que den servicio a garajes unifamiliares se podrá eximir el cumplimento del requisito de capacidad mínima.*

*La licencia a conceder en estos supuestos será la de vado de uso permanente.*

- *Excepcionalmente, se podrían conceder licencias de vado a los locales con una capacidad mínima de estacionamiento para tres turismos o furgonetas de carga inferior a 3.500 kg., y dispongan de una superficie útil de al menos 75 m² (incluyendo parte proporcional de viales, accesos, etc.); siempre que cumplan con los siguientes requisitos:*
    - *La configuración de la superficie del local deberá de permitir que los vehículos entren y salgan de manera independiente, es decir, que maniobren sin que sea necesario mover otro de los vehículos ya estacionados. Salvo en el caso de viales de baja intensidad, en donde el pequeño*

*publikoan maniobratzeko aukera ematen duen lekuetan, alegia. Horrelakoetan, Udaltzaingoak txostena egin beharko du, lokala pasabidea emateko egokia den ala ez adieraziz.*

- *Automatikoki irekitzeko atea izan beharko dute, trafikoa ez oztopatzeko, eta kanpoko argi bat jarri beharko da, ibilgailuak sartu edo atera daitezkeela adierazteko.*
- *Lokalak su-itzalgailuak izango ditu.*
- *Pasabideak ezin izango ditu 5 metro lineal baino gehiago izan edo, sarbidearen aurrean, ezingo du kendu eremu publikoan aparkatzeko plaza bat baino gehiago.*

*Horrelako kasuetan emango den lizentzia erabilera iraunkorreko pasabidearena izango da.*

- *Automobilaren sektoreko merkataritza-lokalak eta konponketa tailerrak, betiere jardunagatik ibilgailuak sartzen eta ateratzen ibiltzeko premia badago.*

*Ordutegi jakin baterako pasabide-lizentzia emango zaie.*

- *Industria- eta merkataritza-establezimenduak, gutxienez 100 m²-ko azalera izan eta, beren jardueragatik, ibilgailuen sarrera eta irteera edo*

*flujo de vehículos permita maniobrar en la vía pública, siempre con un informe preceptivo de la Policía Municipal que valore favorablemente la idoneidad del local para la concesión del vado.*

- *Deberán de contar con puerta de apertura automática para no interferir en el tráfico, y se deberá de colocar una luz exterior de aviso que indique la posible entrada o salida de vehículos.*
- *El local contará con dotación de extintores.*
- *El vado no podrá tener más de 5 metros lineales o eliminar más de una plaza de estacionamiento de la vía pública, frente al acceso.*

*La licencia a conceder en estos supuestos será la de vado de uso permanente.*

- *Talleres de reparación y locales comerciales del sector del automóvil, siempre que la actividad desarrollada exija necesariamente la entrada y salida de vehículos.*

*Se les concederá licencia de vado sujeta a horario.*

- *Establecimientos industriales y comerciales, con una superficie mínima de 100 m² cuya actividad precise de entrada y salida de vehículos o de*

*zamalanak maiztasun handiarekin egin behar dituztenak.*

*operaciones de carga y descarga de especial frecuencia.*

- *Aurrez adierazitako baldintza horiek bete ez arren, pisu handiko zamalanak egin behar izaten dituzten establezimenduek ere pasabidea eduki dezakete. Aurretik, zamalanak egiteko premia justifikatu behar dute eta zamalanak egiteko erabiltzen dituzten tresnen edo aparatuen zerrenda aurkeztu.*

- *También aquellos establecimientos en que sin cumplirse las condiciones anteriores deban efectuarse la carga y descarga de pesos importantes, previa justificación de la necesidad de tales operaciones y presentación de la relación de aparatos de carga y descarga utilizados para dichas tareas.*

- *Kasu bietan, Udalak aztertuko du pasabidea ematea komeni den ala ez, jardueraren ezaugarriak eta kokatuta dagoen lekuko trafikoaren egoera zein den ikusita.*

- *Se valorará en ambos casos por parte municipal la conveniencia o no de la concesión en función de las características de la actividad y de la problemática del tráfico de la zona donde se ubique.*

*Pasabide-lizentzia emanez gero, pasabidea ordutegi mugatukoa izango da, salbu eta jarduera iraunkorra dela behar bezala justifikatzen bada.*

*Caso de concederse la licencia de vado, esta será de horario limitado, salvo cuando se justifique suficientemente que la actividad que justifica la concesión es de carácter permanente.*

*Halaber, aldi baterako pasabidea eman daiteke ordutegi jakin baterako, eraikinak edo azpiegiturak eraikitzen edo birgaitzen ibili eta obrako ibilgailuak obra aldera sartu eta irten beharra dutenean.*

*También podrá concederse licencia de vado temporal sujeta a horario en el caso de obras de rehabilitación o construcción de inmuebles o infraestructuras en las cuales sea necesario que vehículos de obra deban de acceder a la zona de obra.*

**BIGARRENA.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, Gipuzkoako

**SEGUNDO**.- Someter el presente acuerdo a información pública por plazo de 30 días

Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean iragarkiak jarriz, interesdunek erreklamazioak egin, eragozpenak jarri edo oharrak egin ahal izan ditzaten. Erreklamaziorik egiten ez bada, eragozpenik jartzen ez bada edo oharrik aurkezten ez bada, hasierako erabakia, automatikoki, behin betikotzat joko da.

hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en su sitio web para que los interesados puedan formular reclamaciones, reparos u observaciones. En caso de no presentarse reclamaciones, reparos, ni observaciones, el acuerdo inicial se entenderá elevado automáticamente a definitivo.

**HIRUGARRENA.-** Erabakia eta Ordenantzaren testua Estatuko eta Autonomia Erkidegoko Administrazioei jakinaraztea, onartu eta hurrengo sei eguneko epean, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 196.3 artikuluan xedatutakoa betez.

**TERCERO**.- Que el acuerdo y el texto de la Ordenanza se comuniquen a las Administraciones del Estado y de la Comunidad Autónoma dentro del plazo de los seis días siguientes a su aprobación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 196.3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre.

**5. Erisono sektoreko UT-2 eta UT-3 partzelen Xehetasun-Azterketaren behin betiko onarpena.**

**5. Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de las Parcelas UT-2 y UT-3 del Sector de Erisono.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

2022ko irailaren 30ean, SPRILUR sozietate publikoak Erisono Sektoreko UT 2 eta UT 3 partzelen Xehetasun-Azterketa proposamen bat aurkeztu zuen.

Con fecha 30 de septiembre de 2022 se presenta por la sociedad pública SPRILUR una propuesta de Estudio de Detalle de las parcelas UTE 2 y UTE 3 del Sector Erisono.

2022ko azaroaren 11n, Udal Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion Xehetasunezko Azterketari. Ekainaren 30eko 2/2006ko lurzoruaren eta hirigintzaren Legeko 98. artikuluak ezarri bezala, hasierako onespen hari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 2022ko azaroaren 18an, eta egunkari bitan ere bai azaroaren 17an, horrela, 20 eguneko epean, espedientea aztertu eta bidezkoak irizten ziren alegazioak aurkez zitezen. Horretarako emandako epean ez da alegazio bat bera ere aurkeztu.

Con fecha 11 de noviembre de 2022 la Junta de Gobierno municipal aprobó inicialmente el Estudio de Detalle. Según lo establecido en el art. 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo se publicó anuncio de dicha aprobación inicial en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 18 de noviembre de 2022, y dos periódicos con fecha 17 de noviembre, a fin de que durante un plazo de 20 días pudiera examinarse el expediente y formular las alegaciones que procedan. No se ha presentado ninguna alegación en el plazo establecido.

Xehetasun-Azterketaren tramitazioa eta onespena ekainaren 30eko Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 98. artikuluak arautzen du.

La tramitación y aprobación de los estudios de detalle se regula en el art. 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Apirilaren 11ko 11/1999 Legeak egindako aldaketaren ondoren, Toki Araubidearen Oinarrien Legeak alkateari ematen dio hirigintza-kudeaketarako baliabideen onarpena emateko ahalmena eta udal Osoko bilkurarentzat gordetzen du udal

La Ley de Bases de Régimen Local, tras la reforma operada por la Ley 11/1999 de 21 de abril, atribuye la competencia para la aprobación de instrumentos de planeamiento de desarrollo al Alcalde, reservando al Pleno la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal.

izapidetzeari amaiera emango dion onespena emateko ekintza.

Onarpenaren ondorioak aipatutako 2/2006 Legearen 89. artikuluan arautzen dira.

Los efectos de la aprobación se regulan en el artículo 89 de la citada Ley 2/2006.

Halaber, artikulu horretan bertan aipatzen denez, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eman dituen organoaren xedapen baten bitartez, behin betiko onespena emateko erabakiak eta, gutxienez, hirigintzako arauak, eta orobat lizentziak eteteko eta etendura kentzeko erabakiak ere, hirigintza-planak erregistroan sartuta daudela adierazita; horrez gain, lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da.

Asimismo en dicho artículo se indica que se publicará en el boletín oficial del territorio histórico el contenido íntegro de los acuerdos de aprobación definitiva y, cuando menos, de las normas urbanísticas, y los acuerdos de suspensión de licencias y su levantamiento, con indicación de haberse producido el depósito del correspondiente plan urbanístico en el registro y se publicará, además, en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico correspondiente.

Espedienteari Hirigintza eta Obra Saileko lege-aholkulariaren txostena erantsita eta kontuan hartuta espediente hau izapidetzean indarrean dagoen araudiko izapideak bete direla,

Incorporado al expediente el informe del Asesor Jurídico del Departamento de Obras y Urbanismo, y considerando que en la tramitación de este expediente se han observado los trámites que se relacionan en la normativa vigente,

Ondorioz, kontuan hartuta 2023ko urtarrilaren 24ko Hirigintza, Obra eta Ingurumen Lan Batzordearen aldeko irizpena.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente de 24 de enero de 2023.

Udal Osoko bilkurak ondokoa erabaki du:

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**LEHENA.-** Behin betiko onartzea Erisono sektoreko UTE 2 eta UTE 3 partzelen Xehetasun-Azterketa.

**PRIMERO.-** Aprobar con carácter definitivo el Estudio de Detalle de las parcelas UTE 2 y UTE 3 del Sector Erisono.

**BIGARRENA.-** Bidaltzea Xehetasunezko Azterketaren ale bat Foru Aldundiari, 2/2006 Legearen 89. artikuluak dioena betez, hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan sar dezan.

**SEGUNDO.-** Remitir un ejemplar del Estudio de Detalle a la Diputación Foral para su inclusión en el registro administrativo de planeamiento, en cumplimiento del artículo 89 de la Ley 2/2006.

**HIRUGARRENA.-** Iragarkia argitaratzea, dokumentu horretan dauden hirigintza-arauekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalerrian zabalkunde handiena duten egunkarietan**.**

**TERCERO.-** Publicar el oportuno anuncio, junto con las normas urbanísticas contenidas en el citado documento, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en los diarios de mayor difusión del municipio.

**6. Klimarako eta Energia Jasangarrirako Eibarko Ekintza Plana (2022-2030) onartzea.**

**6. Aprobación del Plan de Acción para el Clima y la Energía Sostenible de Eibar (2020-2030).**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

2020ko martxoan, Eibarko Udalak bat egin zuen “Klimaren eta Energiaren aldeko Alkatetzen Ituna”rekin. Ekimenak 57 herrialdetako 7.000 toki-erakunde baino gehiago biltzen ditu, eta partaideek beren borondatez hartzen dute konpromisoa Europar Batasuneko klimaren eta energiaren arloko helburuak ezartzeko.

En marzo de 2020 el Ayuntamiento de Eibar se unió al "Pacto de las Alcaldías” para el Clima y la Energía", una iniciativa de la Comisión Europea que agrupa a más de 7.000 entidades locales de 57 países que de forma voluntaria se comprometen a implantar los objetivos en materia de clima y energía de la Unión Europea.

Hala, Udalak konpromisoa hartu zuen europar helburu hauek lortzeko: berotegi-efektuko gasen isuriak % 40 murriztea (gaur egun helburu hau % 55ekoa da) hemendik 2030era bitartean, klima-aldaketaren aurkako ekintzak sustatzea, eta klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriak garatzea.

De esta manera, el Ayuntamiento asumió el compromiso de alcanzar el objetivo europeo de reducir en un 40% (actualmente este objetivo es de 55%) los gases de efecto invernadero de aquí al año 2030, de promover acciones contra el cambio climático y desarrollar medidas para adaptarse a las consecuencias del cambio climático.

Helburu horiek betetzeko, eta Ituna sinatzean hartutako konpromisoaren zati gisa, Udalak Ekintza Plan bat onartu eta aurkeztu behar zuen bi urteko epean. Dokumentu hori egitea atzeratu egin denez, luzapena eskatu zen, eta, beraz, plana aurkezteko epea 2023ko apirilaren 27an amaituko da, eta Alkatetzen Itunaren baldintzen arabera, Udalbatzak edo pareko erakunde batek onartu behar du.

El Ayuntamiento para cumplir estos objetivos, y como parte del compromiso adquirido con la firma del Pacto, debía aprobar y presentar en el plazo de dos años un Plan de Acción. Puesto que la elaboración de dicho documento se ha retrasado, se solicitó una prórroga, por lo que el plazo para la presentación del plan finaliza el próximo 27 de abril de 2023, que de acuerdo a las condiciones del “Pacto de las Alcaldías” debe ser aprobado por el Pleno municipal u organismo equivalente.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen 14. artikuluak ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko

El artículo 14 de la ley 4/2019 de sostenibilidad energética de la comunidad autónoma vasca establece que todas las administraciones públicas vascas deberán

administrazio publiko guztiek energia-jarduketen hainbat urtetarako planak egin beharko dituzte; plan horietan, beren jarduera-eremuan zer egoera dagoen jakiteko diagnostikoak egin beharko dituzte, eta plana indarrean dagoen bitartean gauzatu beharreko estrategiak zehaztu. Horretaz gain, planak egiteko prozesuetan herritarrek parte hartuko dutela bermatu behar dute.

diseñar sus propios planes de actuación energética de carácter plurianual, en los que realicen un diagnóstico de la situación en su ámbito de actuación y fijen estrategias a ejecutar durante la vigencia de estos. En todo caso, se garantizará la debida participación ciudadana en su proceso de elaboración.

Ekintza-plana egiteko, ADOS Sostenibilidad y Clima eta INERGY enpresen laguntza teknikoa kontratatu da. Enpresa horiek IHOBEren “Euskadiko klimaren eta energiaren tokiko planak egiteko gida” prestatzen lagundu dute, eta, hortaz, gida horretan proposatutako metodologiari jarraitu zaio.

Para la elaboración del Plan de Acción se ha contado con la asistencia técnica de las empresas ADOS Sostenibilidad y Clima e INERGY, quienes han colaborado con la elaboración de la “Guía para la elaboración de planes locales de clima y energía de Euskadi” de IHOBE, por lo que se ha seguido la metodología propuesta en dicha guía.

Hala, 2021ean hasi zen plana egiteko prozesua, eta, horretarako, talde eragile bat sortu zen Udaleko sail ezberdinetako eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuetako (Debegesa, Debemen eta Debabarreneko Mankomunitatea) teknikariz osatua.Talde eragile horrekin barne-koordinazioko hiru saio egin dira, eta bi banan-banakakoak inplikatutako sailen ekarpenak jasotzeko. Horrekin batera, herritarren partaidetza-prozesu bat egin da eta haren emaitzak kontuan hartu dira Planeko neurrien proposamenean eta neurrien lehentasunean. Zehazki, honako ekintzak egin dira herritarren partaidetza-alorrean:

De esta manera, en 2021 arrancó el proceso de elaboración del plan, para lo cual se creó un grupo motor formado por técnicos/as de diferentes áreas del Ayuntamiento, así como técnicos/as de otras entidades supramunicipales (Debegesa, Debemen y Mancomunidad de Debabarrena). Con este grupo motor se han llevado a cabo tres sesiones de coordinación interna, además de sesiones individualizadas para recoger las aportaciones de los departamentos implicados. Paralelamente, se ha llevado a cabo un proceso de participación ciudadana, cuyos resultados han sido

considerados en la propuesta y priorización de las medidas del Plan. En concreto, se han llevado a cabo los siguientes hitos de participación con la ciudadanía:

- 2021eko urtarrilean inkesta bat egin zen, zeinean 98 pertsonak parte hartu zuten.
- 2021eko ekainaren 7an, herritarren partaidetzako lehen jardunaldia egin zen modu telematikoan, eta 11 lagunek parte hartu zuten.
- 2022ko irailaren 28an, bigarren eta azken saioa egin da, modu presentzialean, eta 9 lagunek parte hartu dute.

- En enero de 2021 se elaboró una encuesta en la que participaron 98 personas.
- El 7 de junio de 2021 se celebró la primera jornada de participación ciudadana de forma telemática, en la que participaron 11 personas.
- El 28 de septiembre de 2022 se ha celebrado la segunda y última sesión en formato presencial, han participado 9 personas.

Gainera, Ingurumeneko Batzorde Aholkulariak ere parte hartu du, zeinari plana egiteko prozesu osoari buruzko informazioa eman zaion. 2022ko azaroaren 18an, Ingurumen Batzorde bat egin zen, berariaz, KEJEP plana aurkezteko, eta epe bat ireki zen udal-taldeek ekarpenak egin zitzaten, baina ez zen ekarpenik egin.

Además, se ha contado con la participación de la Comisión Asesora de Medio Ambiente, a la cual se ha mantenido informada de todo el proceso de elaboración del plan. El 18 de noviembre de 2022, se celebró una Comisión de Medio Ambiente expresamente para la presentación del PACES, abriendo un plazo para que los grupos municipales pudieran hacer las aportaciones oportunas, no habiéndose realizado ninguna.

Planak honako edukiak jasotzen ditu:

- Udalerriko berotegi-efektuko gasen isurketen oinarrizko inbentarioa eta

Este plan incluye los siguientes contenidos:

- Un inventario base de las emisiones de gases de efecto invernadero del

gasak arintzeko diagnostikoa (2010 oinarri-urterako eta 2019rako, eskuragarri dagoen azken urterako, udal-sektoreen energia-kontsumoari buruz lortutako emaitzetatik abiatuta).

- Arrisku eta kalteberatasun Klimatikoen Ebaluazio bat.

- Gas-isuriak arintzeko eta egokitzeko neurrien plan bat; zehazki, 111 neurri, 9 ildo estrategikotan banatuak.

Plan honetako neurrien bidez, 2030. urterako zenbait helburu lortu nahi dira, jasangarritasun energetikoari buruzko 4/2019 Legeak, Klimarako eta Energiarako Alkatetzen Itunak eta Euskadiko Klima Aldaketari buruzko Estrategiak ezarritakoak.

Helburu horiek betetzeko eta plan hori gauzatzeko, beharrezkoa izango da udal-aurrekontuetan urtero neurri horiek ezartzeko kostua jasotzea, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen 50.1 artikuluan adierazten den bezala: *Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, lege honetan ezarritako betebeharrei aurre egiteko behar adina diru-zuzkidura jasoko dituzte bakoitzari dagozkion aurrekontuetan".*

municipio y diagnóstico de mitigación (a partir de los resultados obtenidos referentes al consumo de energía de los distintos sectores municipales para el año base, 2010, y el último año completo disponible, 2019.

- Una Evaluación de Riesgos y Vulnerabilidades Climáticas.

- Un plan de medidas de mitigación y adaptación, concretamente 111 medidas distribuidas en 9 líneas estratégicas.

A través de las medidas de este plan se pretende llegar a una serie de objetivos para el año 2030 establecidos por la ley 4/2019 de sostenibilidad energética, el "Pacto de las Alcaldías" para el Clima y la Energía" y la Estrategia de cambio climático de Euskadi.

Para el cumplimiento de estos objetivos, y la ejecución de dicho plan, será necesario que los presupuestos municipales contemplen anualmente el coste de implantación de estas medidas, tal y como indica el artículo 50.1. de la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética de la CAV *"Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, consignarán, en sus respectivos presupuestos, las dotaciones económicas suficientes para hacer frente a las obligaciones establecidas por la presente ley".*

Azkenik, Alkateen Ituna sinatzean hartutako konpromisoetan oinarrituz, bi urtean behin, Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana aurkeztu ondoren (KEJEP), plana betetzen den ebaluatu beharko da, haren aurrerapena egiaztatzeko.

Finalmente, de acuerdo con los compromisos adquiridos con la firma del “Pacto de las Alcaldías”, cada dos años, después de presentar el Plan de Acción para el Clima y la Energía Sostenible (PACES), se deberá evaluar su cumplimiento con el objetivo de comprobar su avance.

Espedienteari Ingurumen Saileko teknikariaren txostena erantsita eta kontuan hartuta espediente hau izapidetzean indarrean dagoen araudiko izapideak bete direla,

Incorporado al expediente el informe de la técnica de medio ambiente, y considerando que en la tramitación de este expediente se han observado los trámites que se exigen en la normativa vigente,

Ondorioz, kontuan hartuta 2023ko urtarrilaren 24ko Hirigintza, Obra eta Ingurumen Lan Batzordearen aldeko irizpena.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente de 24 de enero de 2023.

Udal Osoko bilkurak ondokoa erabaki du:

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**LEHENA.-** Behin betiko onartzea Eibarko Klimarako eta Energia Jasangarriarako Ekintza Plana, 2022-2030.

**PRIMERO.-** Aprobar con carácter definitivo el Plan de Acción para el Clima y la Energía Sostenible de Eibar 2022-2030.

**BIGARRENA.-** Argitaratzea onartutako plana udal-webgunean.

**SEGUNDO.-** Publicar el Plan aprobado en la web municipal.

